



EUSKAL CURRICULUMEAN IKUSPEGI FEMINISTA LORTZE ALDERA. EZTABAIDARAKO HAUSNARKETAK

2006ko urtarrila. Rosa Andrieu. EHuko irakaslea.

Balioen Filosofiako eta Gizarte Antropologiako Saila

Abiapuntua hezkuntza sistema Euskal Herriko egungo gizarte ingurunean kokatzea da, betetzen duen eginkizuna eta zuzentzen duten printzipioak. Izan ere, gizarte neoliberalaz ari garenean, sortzen ari den ekonomia, politika, gizarte eta kultur ingurune oso batez ari gara; hau da, aldaketa esanguratsuak gertatzen ari dira, gizarte ereduan eta emakumezkoen egoeran dutenak eragina –berdintasunaren aroa–.

Gizarte neoliberalaren ezaugarrietako bik lagunduko digute arazoa ulertzen. Batetik, guztia salgai edo ekonomia bihurtzeak etekinean oinarritutako logikari ematen dio bide, errentagarritasunari, eragingarritasunari, eta, ondorioz, hezkuntza inbertsiotzat, baliabidetzat, enpresatzat hartzen da. Bestetik, lehia libreak indartsuenaren, eliteen nagusitasunean oinarritutako eta elkertasunik gabeko gizarte harreman indibidualistak taxutzen ditu eta, ondorioz, hezkuntzak arauak onartzen dituzten eta gizartearen baitan arrakasta izateko beharrezko gaitasunak dituzten banakoak eman behar ditu. Ikuspegi horri jarraiki, hezkuntza sistemak Mendebaldeko gizarte kapitalistak historikoki egokitu dion funtzioa betetzen segitzen du: hezkuntza nagusi diren ezagutzak, teknikak, jarrerak, jokabideak, arauak eta balioak transmititzeko familiaz, komunikabideez, Elizaz eta lagunarteaz kanpoko eragile ideologiko nagusitzat hartzen den neurrian, gizarteko botere harremanek, oinarri dituzten hierarkia eta (klase, etnia, kultura, nazio eta sexu arteko) desberdintasun printzipioek bere horretan jarrai dezaten bermatu eta banako gizarteratuak, kritikotasunik gabeak, konformistak, etab. sortzea.

Horregatik guztiagatik, euskal curriculumuma planteatzeak aldatu nahia eta hezkuntzaren beste ikuskera bat islatzen du, honela laburbil daitekeena oro har prozesu horren balizko ikuspegi feminista zehazte aldera: curriculuma gizartea eraldatzeko bitartekoa izatea, Euskal Herriko gizartea hizkuntza, kultura, ekonomia, politika eta historia arloan eraldatuko duten pertsonak eta baldintzak sortzea. Horretarako, ordea, beharrezkoa da Euskal Herriko egungo errealitatearen berri sakon jakitea baina, emakumezkoak ez badira kontuan hartzen, curriculum berriak ekar ditzakeen aldaketek ez dute eraginik biztanleriaren erdiaren baino gehiagoren egoeran, eta emakumeek gizartean bigarren mailakoak izatea onar dezaten eta halaxe jarrai dezaten eragiten dute; alegia, arriskua dago curriculum berriak, eskola sexistak eta patriarkalak ez ezik, gizarte patriarkalak berak ere bere horretan segi dezan eragitekoa.

Ikuspegi feministak Euskal Herriko emakumeen gizarte egoera eta hezkuntza sistemaren ardura (emakumeak aldaketa eragile bihurtzekoa) hartu behar lituzke kontuan. Emakumeen egoera dela-eta, gizarteak nabarmen aldatu dela antzematen du, berdintasuna (edo “berdintasunaren ilusioa”) lortu dela edo, behinik behin, bide onetik doala, denbora kontua dela, emakumeen aurkako bazterketa zenbait gizonen jarrera matxistaren ondorio dela, pentsaera hori eraldatuko duen hezkuntzaren bitartez zuzen daitezkeen akatsak direla, gizarte neoliberalak gizonen eta emakumeen aukeren arteko berdintasuna bermatzen duen eredu bailitza, ahalik eta eredu berdintasunezkoena bailitza. Errealitateak, baina, kontrakoa dio: aldaketa horiek ez direla ez hainbestekoak ez hainbestearinokoak, patriarkatuak bere horretan jarraitzen duela, gizarte neoliberalak

sexuen arteko botere harremanak behar dituela. Emakumezkoek ekonomia, politika, gizarte, kultura arloan duten parte hartzeari buruzko datuak kezkarriak dira oraindik ere, emakumeen pobrezia, mendekotasunak, lanaldi bikoitzak, karguetatik kanpo egoteak, gutxiespenak, bazterketak, erasoek ez dute atzera egiten, eta emakume askoren gizarte larrialdiak gero eta handiagoak dira. Berdintasun politikak eta legeak gure inguruneke funtsezko osagai bilakatzen ari dira: nolabait, egungo egoera aldatuko duten konfiantza pizten dute, baina tradizio feministak erakusten du berdintasun formala eta berdintasun erreala oso bestelakoak direla, nolabaiteko borondate politiko hori gorabehera, Euskal Herriko emakumeen eskubideak bete egiten ez direlako.

Berdintasunaren ilusioaren jakitun izan behar dugun aldi berean, feminismoari edo feminismoei eta mugimendu feministari (emakumeek zapalkuntza historikoari aurre egiteko moduari) buruzko ezjakintasunaren jakitun izan behar dugu, Euskal Herriko errealtateari buruz desinformatzeaz gain, egoera aldatzeko beharrezko erreferenteak ezabatu eta emakumea subjektu pasibo, konformista eta gutxitu jotzen duen ikuspegia indartzen duelako. Alde horretatik, gizarteak feminismoaren inguruan duen ikuspegi nagusiak emakumeen eta gizonen arteko borrokatzat hartzen du feminismoa, planteamendu eta helburu homogeenak dituela dio, eta emakumez eta emakumeentzat bakarrik mintzatzen dela. Alabaina, feminismoaren inongo joerak (ez liberalak, ez muturrekoak, ez sozialistak, ez berdintasunaren aldekoak, ez desberdintasunaren aldekoak, ez posfeminismoak) ez du planteatzen gizonen aurkako borroka, sexuen arteko botere harremanen eraldaketa baizik.

Euskal curriculumaren egiteko proposamen feministak ezin da hutsetik abiatu; aitzitik, zientziaren eta ikaskuntzaren alorrean izandako ekarpen feministak ugari baina hezkuntza eragile gehienek ezagutzen ez dituztenak bildu behar ditu. Ildo horretan, androzentrismoaren aurkako kritika eta berau gainditzeko proposamenak nabarmendu nahi nituzke, giltzarriak izan baitziren 1960ko hamarkadan loratu ziren adituen eta zientzialarien artean: zehatz-mehatz, androzentrismoa ezagutza zientifikoan (ezagutza dutenengan, ezagutzaren gaian eta ezagutza eskuratzeko moduan) eragina duen joera teorikoa eta praktikoa da, emakumeak ezagutza zientifikoaren subjektu eta objektutzat ezabatzen dituen, eta Euskal Herrian indarrean dagoen hezkuntza sisteman dago presente (edukietan, jarreretan, balioetan, eta abarretan; hau da, curriculumaren alderdi guztietan); hots, ez da ikasgai kontua. Kritika horrek helburu orokortzat berdintasuna duten askotariko hezkuntza esperientzietan gauzatu diren proposamenak ekarri ditu, besteak beste, baterako hezkuntza; hain zuzen ere, baterako hezkuntza izan da eta da ardatz nagusietako bat baina, nesken eta mutilen hezkuntzat baino gehiago, berdintasunezko balioetan hezten duen hezkuntzat jo behar da.

Gizarte zientzien alorrean, ekarpen feministak batzuk eredarriak izan daitezke euskal curriculumaren proposamenak kontuan hartu beharko lituzkeen gutxienekoak zehazteko bederen:

- emakumeak agerraraztea (gizarteari egin dizkioten ekarpenak ez ezik, baita patriarkatua, sexuen arteko botere harremanak ere)
- teoria feministen gaineko ezagutza
- mugimendu feministaren gaineko ezagutza
- hainbat adigairen eta errealtateren (hala nola, sexuen eta generoen araberrako sistemaren, berdintasunaren, sexu indarkeriaren, ekintza positiboko politiken, lanaldi bikoitzaren, familia eta lana uztartzearen, kristalezko sabaiaren, boterea eskuratzaren, norbere sexuaz jabetzearen eta maskulinitasunen) gaineko ezagutza